

Euskal AEko industri jarduera %-20 murriztu zen 2009ko irailean


Aurreko hilaren, 2009ko abuztuaren aldean, %-0,3 murriztu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2009ko irailean %-20,0 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2008ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %-0,3 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko abuztuarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2009ko iraileko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2008koaren aldean. Ekipoko ondasunek %-24,8ko jaitsiera izan dute; Bitarteko ondasunek %-22,6 eta Energiak %-15,1. Kontsumoko ondasunek %-9,6, batez ere Kontsumo iraunkorreko ondasunen jaitsieragatik (%-21,5), ez-iraunkorrekoak askoz modu apalagoan (%-4,8) jaitsi baitziren.

2009ko abuztuaren aldean, 2009ko irailean hil arteko aldaketak negatiboak izan dira denetan, Kontsumoko ondasunetan (%0,2) izan ezik, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%0,4) eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%0,1) izandako igoerak eraginda Energia %-2,2 jaitxi da, Tarteko ondasunak %-0,6 eta Ekipoko ondasunak %-0,3.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban %-16,7 jaitxi da, Bizkaian %-20,0 eta Gipuzkoan %-21,8.

Iraila arteko urte arteko tasa metatuetan Arabak beste biek baino hazkunde txikiagoak ditu. Zehazki, Arabak %-27,8ko tasa metatu negatiboa du, Bizkaia %-22,3 eta Gipuzkoa %-23,8.

Hil arteko tasak, 2009ko iraila abuztuaren aldean, negatiboak izan dira Bizkaian (%-0,5) eta Gipuzkoan (%-1,3); Araban, berriz, positiboa, %+1,9.

Taula: 2009ko IRAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonizatua	
	09Ira/08Ira	At/At-1 (1)	09Ira/09Abu	09Abu/09Uzt
Indize orokorra: Euskal AE	-20,0	-23,9	-0,3	-0,1
Araba	-16,7	-27,8	1,9	1,3
Bizkaia	-20,0	-22,3	-0,5	-0,2
Gipuzkoa	-21,8	-23,8	-1,3	-0,5
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-9,6	-13,6	0,2	-1,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-21,5	-28,7	0,4	3,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,8	-7,9	0,1	-2,5
Ekipo-ondasunak	-24,8	-27,3	-0,3	-0,4
Bitarteko ondasunak	-22,6	-29,0	-0,6	-0,5
Energia	-15,1	-7,9	-2,2	-0,8

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp